



**2024KO UZTAILAREN 29KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko uztailaren 29an, arratsaldeko hiruretan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide eta Joxemai Oramazabal Sukia.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2024ko uztailaren 15ean egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2024ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 57 zenbakidun zerrenda, BERROGEITA BAT MILA EHUN ETA ZORTZI euro ETA LAUROGEITA HIRU zentimokoa (41.108,83 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

**III.- KIROL ETA GAZTERIA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-**

Kirol eta Gazteria batzordetik, "Lazkao, Kirol Sariak" emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

**Lazkao, Kirol Sariak.-**

"Lazkao, Kirol Sariak" egitasmoaren 2024 urteko deialdia onartzeko proposamena egin du Kirol eta Gazteria batzordeak.

Proposamenari erantsitako deialdiak honakoa dio:

***"LAZKAO, KIROL SARIAK" EGITASMOAREN 2024 URTEKO DEIALDIA.***

*1. artikulua. Xedea.*



“Lazkao, Kirol Sariak” ekimenaren helburua Lazkaoko edo Lazkaon, kirolaren eremuan nabarmendu diren pertsona zein erakunderi, izandako lorpenei eta egindako lanari aipamen eta aitortza berezia egitea da, jendaurrean jakinarazi eta esker ona formalki adieraziz.

## *2. artikulua. Izaera.*

Sariak ohorezko izaera dute, ez dute inolako ekarpen ekonomikorik izango.

Urteroko maiztasuna izango dute eta San Miel jaien bueltan, ospatuko den ekitaldia publikoan saritu bakoitzari oroigarri bat emango zaio.

## *3. artikulua. Ezargarri den araudia.*

Lazkaoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran onartutako oinarri arautzaileak.

## *4. artikulua. Izendapenak edo hautagaitza proposamenak.*

Proposamenak edozein pertsona, erakunde edo Balorazio batzordeak egin ahal izango ditu.

## *5. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak eta eskaerak aurkezteko epea.*

### *5.1. Dokumentazioa:*

Lazkaoko Udalak prestatutako aplikazioaren bidez edo Udaleko, nahiz Joxemiel Barandiaran Kiroldegiko harreraren, dagokion inprimakia betez aurkeztu ahal izango dira hautagaitza proposamenak.

Egiten den proposamena arrazoitu egin beharko da, merezimendu, lorpen edo kirol ibilbidea arrazoitu eta azalduz.

### *5.2. Eskariak aurkezteko epea:*

Proposamenak aurkezteko epea ekainak 1ean irekiko du Udalak, eta abuztuaren 31an amaituko da.”

## IV.- LANDA EREMUA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa Eremuko batzordetik baserritar ekoizleei dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

### - Baserritar ekoizleei bonoengatik.-

Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2024ko maiatzean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat baserritarrek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarrei bigarren ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:





LAZKAOKO  
UDALA

EKOIZLEA	GUZTIRA	DIRU LAGUNTZA
AITOR IZTUETA BARANDIARAN	405 €	173,57 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>405 €</b>	<b>173,57 €</b>

Dirulaguntzari dagokion zatiaren ordainketa, aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.

V.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko hirurak eta hogeita hamabost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.

LAZKAOKO  
UDALA